

1788/2024 EBAZPENA, ABENDUAREN 19KOA, DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, IRAILAREN 11KO 1351/2024 DEIALDIA BETE GABE UZTEN DUENA. DEIALDI HORREN BIDEZ, ANTOLAKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN BIDEZ BETE NAHI DA ERAKUNDEAN/ZERBITZU EGINKIZUNETAN/ERAKUNDEEN ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN BIDEZ.

Donostialdea ESiko zuzendari gerentearen irailaren 11ko 1351/2024 Ebazpenaren bidez, antolaketan/zerbitzu-eginkizunetan/erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapenaren bidez Balioa Kudeatzeko Unitateko Kalitate Unitateko Antolakuntzako Goi Mailako Teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen. 2024ko irailaren 19an argitaratu zen webgunean. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, bi hautagai aurkeztu dira, behar den moduan eta epean.

Balorazio Batzordeak, eskabideak eta curriculum vitaeak arretaz aztertu ondoren, eta bi hautagaiei elkarrizketak egin ondoren, erabaki zuen bete gabe uztea antolakuntzako goi-mailako teknikariaren lanpostu bat betetzeko deialdia, antolaketan/zerbitzu-eginkizunetan/erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapenaren bidez. Izan ere, hautagaietako batek ere ez du egiaztatzen lanposturako ezagutza eta gaitasun egokiak dituela eta beharrezkoak direla lanpostuari lotutako eta deialdian jasotako eginkizunak betetzeko.

Horregatik, Gerentziako Zuzendaritza honek deialdia bete gabe uztea erabaki du, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen Hirugarren Arau Komunaren 28. artikuluan, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz.

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- Bete gabe uztea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuaren Balioa Kudeatzeko Unitateko Kalitate Unitatean antolakuntzako goi-mailako teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Donostia, 2024ko abenduaren 19a.

ZUZENDARI GERENTEA
Eskuordez: Langileen Zuzendaria
(abenduaren 13ko 2266/2022 Ebazpena)

Izp.: María Pilar Sánchez Garduño

 Osakidetza
DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

